a) Uren, airearen, lurzorua eta luraren, faunaren, floraren eta espazio naturalen egoera, horien arteko elkarrekintzak eta elementu horien egoerari eragin dioten edo eragin diezaioketen jarduerak eta neurriak barne.

b) Ingurugiroa kudeatzeko planak edo programak eta ingurugiroa babesteko ekintzak edo neurriak.

2.- Informazioa eskuratzeko eskubidea erabiltzeko, dagokionean, informazioa eskatu zaion Administrazioak ezarritako prezio publikoa ordaindu beharko da, eta bere zenbatekoa ez da bidezko kostua baino handiagoa izango. Bidezko kostutzat informazioaren euskarri fisikoarena hartuko da.

#### 18. atala.- Informazioa ukatzea.

1.- Ingurugiroari buruzko informazioa ukatu ahal izango da informazio horrek ondoko alderdietakoren bati eragiten dionean:

a) Gobernu Kontseiluko deliberazioen sekretuari.

b) Segurtasun publikoari.

c) Sub judice dauden gaiei edo ikertzen ari direnei, diziplinazko edo aurretiazko ikerketak barne.

d) Merkataritzako eta industriako sekretuei, jabe-gogo intelektuala barne.

e) Datu edota espediente pertsonalen sekretuari.

f) Hirugarren batek eskainitako datuei, hori juri-dikoki ematera behartuta ez dagoelarik.

g) Zabalduz gero ingurugiroari kalte egiteko aukera eskaintzen duten datuei.

2.- Agintari publikoen eskuetan dagoen informazioaren zati bat emango da, bertan aurreko azpiatalean aipatutako interesetatik dagozkien puntuak bereizteko modua dagoenean.

3.- Informazio-eskeari uko egiterik izango da, amaitu gabeko dokumentu edo datuak edo barneko jakinarazpenak eskatzen direnean, edo eskea argi eta garbi gehiegizkoa denean edo era orokorregian egingdakoa denean.

4.- Ingurugiroari buruzko informazio-eskeak gehenez ere bi hilabeteko epean ebatzi beharko dituzte administrazio publikoek. Epe hori informazio-eskeak administrazio-organo eskudunaren edozein

1.- La información ambiental disponible en las Administraciones públicas y/o en los concesionarios de servicios públicos relacionados con el medio ambiente, bajo cualquier forma de expresión y en todo tipo de soporte material, será proporcionada por el procedimiento establecido en la Ley 38/1995, de 12 de diciembre, sobre el derecho de acceso a la información en materia de medio ambiente, y estará referida:

a) Al estado de las aguas, el aire, el suelo y la tierra, la fauna, la flora y los espacios naturales, incluidas sus interacciones recíprocas, así como a las actividades y medidas que hayan afectado o puedan afectar al estado de estos elementos.

b) A los planes o programas de gestión del medio ambiente y a las actuaciones o medidas de protección ambiental.

2.- El ejercicio del derecho de acceso a la información dará lugar, en su caso, al pago del precio público que establezca la Administración requerida y cuyo importe no podrá exceder de un coste razonable, entendiéndose por tal el coste del soporte físico de la información.

#### Artículo 18.- Denegación de información.

1.- Se podrá denegar el acceso a la información sobre medio ambiente cuando ésta afecte a cualquiera de los aspectos siguientes:

a) La confidencialidad de las deliberaciones del Consejo de Gobierno.

b) La seguridad pública.

c) Los asuntos que se encuentren sub judice o sean objeto de pesquisas, incluidas las investigaciones disciplinarias o preliminares.

d) Los secretos comerciales e industriales, incluida la propiedad intelectual.

e) La confidencialidad de datos y/o de expedientes personales.

f) Los datos proporcionados por un tercero, sin que éste esté obligado jurídicamente a facilitarlos.

g) Los datos cuya divulgación pueda perjudicar al medio ambiente al que se refieren.

2.- Se facilitará parcialmente la información en poder de las autoridades públicas cuando sea posible separar de la misma la información sobre puntos relacionados con los intereses mencionados en el apartado anterior.

3.- Se podrá denegar una solicitud de información cuando ésta implique el suministro de documentos o datos inconclusos o de comunicaciones internas o cuando la solicitud sea manifiestamente abusiva o esté formulada de forma demasiado general.

4.- Las Administraciones públicas deberán resolver las solicitudes de información sobre el medio ambiente en el plazo máximo de dos meses a partir de la fecha en que aquéllas hayan tenido entrada en cual-

erregistrotan sartzen diren egunetik hasiko da neur-tzen.

5.- Eskatutako informazioa erabat edo zati batean ukatzen duten administrazio-ebazpenak arrazoituak izango dira, eta, horretarako, gertakarien eta zuzen-bidezko oinarrien aipamen laburra egingo da.

6.- Ebazpen horiei errekurtsioa jarri ahal izango zaie Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Jardunbide Komunari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusita dagoen eran.

V. ATALBURUA  
PROZEDURA HITZARMENEZ  
AMAITZEA

**19. atala.** - Hitzarmenez amaitzea.

1.- Lege hau aplikatetik ondorioztatzen diren prozedura administratiboak, nolahi ere transakzio-pekoak ez diren gaietarako salbu, eskatzailearen eta eskudun Administrazioaren arteko hitzarmenez amaitu ahal izango dira. Horretarako, zuzeneko negoziatziora edo biek onartuta izendatzen diren bitartekari edo bakegileengana jo ahal izango da.

2.- Negoziazioak hasi eta handik hiru hilabetera akordiorik ez badago, Administrazioak behin betiko erabakia emango du.

3.- Adiskidetze-akta edo antzeko dokumentua sinatzen bada, edukia behin betiko ebazpen gisa formalizatuko da.

**20. atala.** - Bide administratiboaren amaiera.

1.- Bide administratiboari amaierarik ematen ez dioten ebazpenei bi aukera hauetako baten bidez errekurtsioa jar dakieke:

a) errekurtsorako prozedura orokorren bidez.

b) bitartekaritza, adiskidetze eta arbitrajearen bitartekari bidez.

2.- Azken kasu horretan bitartekari, adiskidetzailer eta arbitroak ados jarrita izendatuko dira eta horien parte-hartzea errekurtsioa ebazteko oro har ezarritako dagoen epea amaitu baino lehen gauzatuko da.

**21. atala.** - Mugak.

Administrazioak prozedurak edo errekurtsioak hitzarmenez amaitzen dituzenean, honakoak errespetatuko ditu:

a) Ordenamendu juridikoaren funtsezko xedapenak,

b) ingurugiro-babeserako interes orokorra,

c) hitzarmenak eragin diezaiekeen hirugarrenen eskubideak.

quiera de los registros del órgano administrativo competente.

5.- Serán motivadas, con sucinta referencia de hechos y fundamentos de derecho, las resoluciones administrativas que denieguen total o parcialmente la información solicitada.

6.- Las citadas resoluciones podrán ser objeto de recurso en los términos previstos en el Título VII de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

CAPÍTULO V  
TERMINACIÓN CONVENCIONAL DEL  
PROCEDIMIENTO

**Artículo 19.** - Terminación convencional.

1.- Los procedimientos administrativos derivados de la aplicación de esta ley, exceptuando, en todo caso, aquellos que versen sobre materias no sujetas a transacción, podrán concluir mediante acuerdo entre el solicitante y la Administración competente. A tal fin, podrá optarse por la negociación directa o a través de mediadores o conciliadores nombrados de común acuerdo.

2.- Si transcurridos tres meses desde el comienzo de la negociación no se hubiese llegado a ningún acuerdo, la Administración resolverá definitivamente.

3.- En caso de que se firme un acta de conciliación o documento equivalente, su contenido será formalizado como resolución definitiva.

**Artículo 20.** - Fin de la vía administrativa.

1.- Las resoluciones que no pongan fin a la vía administrativa podrán ser recurridas opcionalmente:

a) mediante los procedimientos generales de recurso.

b) solicitando su resolución por vía de mediación, conciliación o arbitraje.

2.- En este último caso la designación de los mediadores, conciliadores o árbitros se hará de común acuerdo y su actuación deberá darse antes de que se agote el plazo que con carácter general se haya establecido para la resolución del recurso.

**Artículo 21.** - Límites.

La Administración en la terminación convencional de los procedimientos o recursos habrá de respetar:

a) las disposiciones sustantivas del ordenamiento jurídico,

b) el interés general de protección ambiental,

c) los derechos de los terceros, eventualmente afectados por el acuerdo.

II. IDAZPURUA  
INGURUGIRO BALIABIDEEN BABESA

I. ATALBURUA  
BIODIBERTSITATEA

**22. atala.** – Biodibertsitateaz.

1.– Biodibertsitatea edo dibertsitate biologikoa esaten zaio edozein iturritako, lehorreko ekosistemetak, itsasoko ekosistemetak eta beste ekosistema urtarretako organismo bizien desberdintasunari, haiek parte hartzen duteneko konplexu ekologikoak barne direlarik. Espezie bakoitzaren barneko, espezieen arteko eta ekosistemen arteko dibertsitatea hartzen ditu barnean.

2.– Biodibertsitatea kontserbatzea eta horren osagaien erabilera jasangarria eta baliabide genetikoaren erabileratik eratorritako onuren bidezko eta berdintasunezko partaidetza izango da ingurugiroari buruzko politikaren eta gainontzeko alor-politiken zehaztapenerako funtsezko ardatza.

**23. atala.** – Xedeak.

Beren eskumenen esparruetan, administrazio publikoei dagokie:

a) Biodibertsitatearen kontserbazioa eta erabilpen jasangarria zaintzea eta bere funtsezko prozesu ekologikoak mantentzea.

b) Kontserbatzeko eta erabilpen jasangarrirako garrantzitsuak diren dibertsitate biologikoaren osagaiak identifikatzea, adierazleak eta balorazio-irizpideak zein mantenimendurako arriskuak definituz.

c) Biodibertsitatea kontserbatzeko eta baliabide natural berriztagarriak era jasangarrian erabiltzeko estrategiak, planak eta programak prestatzea, baliabide berriztaezinak agortzea saihestuko delarik.

d) Kontserbaziorako neurriak proposatzea, biodibertsitatea mantentzeko datu-bankuak, biodibertsitate-korridoreak eta espezie aloktonoak eta genetikoak aldatutako organismoak sartzeko kontrolak ezarrituz.

e) Kaltetutako habitata berreskuratu eta leheneratzeko eta arriskuan diren espezieak kontserbatzeko neurriak proposatzea.

f) Dibertsitate biologikoaren kontserbazioa eta erabilpen jasangarrira aplikatutako ikerketa bultzatzea eta sustatzea. Halaber biodibertsitatea ezagutzeko eta kudeatzeko arlo interesgarrietan adituak prestatzea.

g) Parte hartzen duten alderdi guztien elkarlan aktiboaren bidez strategiaren azken helburua lortzeko, erakunde publikoen eta gizarteko agenteen arteko konpromisoa lortzea.

TÍTULO II  
PROTECCIÓN DE LOS RECURSOS AMBIENTALES

CAPÍTULO I  
LA BIODIVERSIDAD

**Artículo 22.** – De la biodiversidad.

1.– Se entiende por diversidad biológica o biodiversidad a la variabilidad de organismos vivos de cualquier fuente, los ecosistemas terrestres, marinos y otros ecosistemas acuáticos, comprendiendo los complejos ecológicos de los que forman parte; comprende la diversidad dentro de cada especie, entre las especies y de los ecosistemas.

2.– La conservación de la biodiversidad y la utilización sostenible de sus componentes y la participación justa y equitativa en los beneficios que se derivan de la utilización de los recursos genéticos constituirá eje esencial de la definición de la política ambiental y demás políticas sectoriales.

**Artículo 23.** – Objetivos.

Corresponderá a las Administraciones públicas en sus respectivos ámbitos competenciales:

a) Velar por la conservación y uso sostenible de la biodiversidad y el mantenimiento de sus procesos ecológicos esenciales.

b) Identificar los componentes de la diversidad biológica que sean importantes para su conservación y utilización sostenible, definiendo indicadores y criterios de valoración, así como los riesgos para su mantenimiento.

c) Elaborar las estrategias, planes y programas para la conservación de la biodiversidad y la utilización sostenible de los recursos naturales renovables, evitando el agotamiento de los no renovables.

d) Proponer medidas de conservación estableciendo para el mantenimiento de la biodiversidad bancos de datos, corredores de biodiversidad y controles de la introducción de especies alóctonas y de organismos genéticamente modificados.

e) Proponer las medidas de rehabilitación y restauración de hábitats degradados y la conservación de las especies amenazadas.

f) Promover y fomentar la investigación aplicada a la conservación y utilización sostenible de la diversidad biológica, así como la formación de especialistas en las áreas de interés para el conocimiento y gestión de la biodiversidad.

g) Lograr el compromiso de las instituciones públicas y de los agentes sociales en la consecución del fin último de la estrategia, mediante una cooperación activa entre todas las partes implicadas.

h) Biodibertsitatea kontserbatzeko eta erabilpen jasangarria sustatzeko gizartearen konpromisoa sendotzearen, herritarren ezagutza- eta kontzientzi maila sustatzea.

i) Elkarlanerako programetan parte hartu eta laguntzea.

j) Paisajea kontserbatzeaz arduratzea.

## II. ATALBURUA UREN ETA ITSASERTZAREN BABESA

### 24. atala. – Xedeak.

Administrazio publikoek urak eta itsasbazterra babesteko duten politikaren helburua kudeaketa jasangarria lortzea eta ur-baliabideak aurreztu eta berri erabil daitezen bultzatzea da, ekosistema urtar eta itsasbazterrekoen biodibertsitatea, funtzionaltasuna eta prozesu ekologikoak kontserbatzea eta berri-tzea oinarritzat hartuz.

### 25. atala. – Oinarriak.

Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruetan, ura eta itsasbazterra babesteko ekintzak burutuko dituzte, eta bereziki honako hauek:

a) Kalitate eta emari ekologikoetarako estandarrak finkatzea.

b) Uren eta itsasbazterren kalitate-maila egokia lortu eta mantentzea.

c) Lur azpiko uren kalitatea eta erabilera jasangarria bermatzea, errekargako zonak eta akuiferoen poluzio-zaugarritasuna mugatzea.

d) Ur, ibilgu eta urbazterretan ingurugiro-kalteak prebenitzea.

e) Ur-baliabidearen kalitatea eta kantitatea areagotzeko bide emango duen erabilpena bermatzea, baliabide hori aurrezte bultzatuz, kontsumoko erabilera guztietan eraginkortasuna handituz eta ura alferrik galtzea saihestuz.

f) Ur-baliabidearekin elkartutako ekosistemak poliki-poliki berreskuratzea.

g) Ahal den neurrian ibilgu eta urbazterren korridore-izaera bermatzea.

h) Itsasbazterreko zonen erabilpen jasangarria segurtatuko duten planak prestatzea.

i) Dagokionean babesteko eta berreskuratze behar diren neurriak hartuz, itsasbazterren osotasuna eta kontserbazio egokia segurtatzea.

j) Itsaso/lehorreko jabari publikoa osatzen duten ondasunak beren izaera eta helburuen arabera raziounalki erabiltzen direla zaintzea eta paisajea, ingurugiroa eta ondare historikoa errespetatzea.

h) Fomentar el conocimiento y la concienciación ciudadana para fortalecer el compromiso social dirigido a conservar la biodiversidad y promover su uso sostenible.

i) Participar y colaborar en programas de cooperación.

j) Velar por la conservación del paisaje.

## CAPÍTULO II PROTECCIÓN DE LAS AGUAS Y DEL LITORAL

### Artículo 24. – Objetivos.

La política de las Administraciones públicas en materia de protección de las aguas y del litoral estará encaminada a lograr su gestión sostenible y la potenciación del ahorro y reutilización de los recursos hídricos, basándose en los principios de conservación y restauración de la biodiversidad, funcionalidad y procesos ecológicos de los ecosistemas acuáticos y ribereños.

### Artículo 25. – Principios.

Las Administraciones públicas en sus respectivos ámbitos competenciales desarrollarán actuaciones dirigidas a la protección ambiental del agua y del litoral y en especial a:

a) Fijar estándares de calidad y caudales ecológicos.

b) Conseguir y mantener un adecuado nivel de calidad de las aguas y de la ribera del mar.

c) Garantizar el uso sostenible y la calidad de las aguas subterráneas delimitando las zonas de recarga y la vulnerabilidad frente a la contaminación de los acuíferos.

d) Prevenir situaciones de deterioro ambiental del agua, cauces y riberas.

e) Garantizar un uso que permita acrecentar la calidad y cantidad del recurso acuático, impulsando su ahorro, incrementando la eficiencia en todos los usos consuntivos y evitando su despilfarro.

f) Recuperar paulatinamente los ecosistemas asociados al recurso acuático.

g) Garantizar, en la medida de lo posible, el carácter de corredor ecológico de los cauces y riberas.

h) Elaborar planes que aseguren el uso sostenible de las zonas costeras.

i) Asegurar la integridad y adecuada conservación del litoral, adoptando, en su caso, las medidas de protección y restauración necesarias.

j) Velar por la utilización racional de los bienes que integran el dominio público marítimo-terrestre de acuerdo con su naturaleza, sus fines y el respeto al paisaje, al medio ambiente y al patrimonio histórico.

k) Zona hezeak kontserbatzea, babesteko eta berreskuratzeko helburuak eta neurriak finkatuz, bere ezagutza bultzatuz eta betiere deuseztatzea eta kaltezea saihestuz.

**26. atala.**– Emakidak eta baimenak.

1.– Administrazio publikoek baimen eta emakidetan ur-baliabideak eta itsasbazterra kontserbatzea bermatuko duten ingurugiro-irizpideak sartuko dituzte, aurreko atalean ezarritako oinarrien arabera.

2.– Itsaso/lehorreko jabari publikoaren babes-zor-tasuneko zonan, erabilpen eta jarduerak, eta Estatuaren eskumeneko uretan egindako isurpen industrial eta poluitzaileak, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organoaren baimen administratiboa behar dute, arlo honetako legeriaren arabera eta araudi bidez xedatzen denaren arabera.

### III. ATALBURUA LURZORUAREN BABESA

**27. atala.**– Lurzorua.

1.– Lurzorua Lurraren kanpo-geruzako alderdi solidoa da, harri amatik gainerainokoa. Barne hartzen ditu fase likidoa, gaseoso eta bertan bizi diren organismoak. Zeregin naturalak edo erabilpenekoak ditu.

2.– Zeregin naturalak hauek dira:

a) Gizakien, floraren eta faunaren habitat eta euskarri izatea, lurreko organismoak barne direlarik.

b) Ziklo naturaleko parte izatea, bere elikagai eta uraren zikloena bereziki.

c) Deskonposizioarako, konpentsazioarako eta agente kimikoak eratzeko ingurune izatea, iragazki, metagailu eta substantzi transformatzaile gisa jokatzeko duelako.

3.– Erabilpen-zereginak hauek dira:

a) Lehengai berriztaezinen hobi eta erreserba izatea.

b) Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako utsiapenen kokaleku eta lehengai berriztagarriak lantzeko kokaleku izatea.

c) Etxebizitzaren eta aisia-lekuen kokaleku izatea.

d) Beste zenbait erabilpen ekonomiko eta azpiegituren kokaleku izatea.

**28. atala.**– Oinarriak.

1.– Administrazio publikoek, lurzorua babestearren, ondoko oinarri hauen arabera jokatzeko dute:

k) Conservar las zonas húmedas, fijando objetivos y medidas de protección y recuperación, potenciando su conocimiento y evitando, en todo caso, su destrucción y deterioro.

**Artículo 26.**– Concesiones y autorizaciones.

1.– Las Administraciones públicas incorporarán, en las autorizaciones y concesiones, los criterios ambientales que garanticen la conservación de los recursos hídricos y del litoral en consonancia con los principios establecidos en el artículo anterior.

2.– Los usos y actividades en la zona de servidumbre de protección del dominio público marítimo-terrestre, así como los vertidos industriales y contaminantes en las aguas territoriales del Estado correspondientes al litoral vasco, estarán sometidos a autorización administrativa del órgano ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco de acuerdo con la legislación sectorial en la materia y lo que se disponga reglamentariamente.

### CAPÍTULO III PROTECCIÓN DEL SUELO

**Artículo 27.**– El suelo.

1.– Se entiende por suelo la parte sólida de la corteza terrestre desde la roca madre hasta la superficie, que incluye tanto sus fases líquida y gaseosa como los organismos que habitan en él, con la capacidad de desempeñar funciones tanto naturales como de uso del mismo.

2.– Son funciones naturales:

a) Hábitat y soporte de los seres humanos, flora y fauna, incluyendo a los organismos del suelo.

b) Parte del ciclo natural, y en especial de sus ciclos de nutrientes e hidrológicos.

c) Medio de descomposición, compensación y formación de agentes químicos en virtud de sus propiedades como filtro, acumulador y transformador de sustancias.

3.– Son funciones de uso:

a) Yacimiento y reserva de materias primas no renovables.

b) Emplazamiento para la explotación agrícola, ganadera y forestal, y el cultivo de materias primas renovables.

c) Emplazamiento de vivienda y áreas de recreo.

d) Emplazamiento para otros usos económicos e infraestructuras.

**Artículo 28.**– Principios.

1.– Las Administraciones públicas, en aras de la protección del suelo, actuarán conforme a los siguientes principios:



a) Lurzoruaren erabilpenak hirigintza- eta lurralde-plangintzako tresnen bidez, haren zereginak bermatzeko esleitzea, lehenetasuna emanek nekazaritza-ekoizpenean erabiltzeko gordetzeari eta, nolana ere, lurzoruak berriz erabiltzeari.

b) Lurzoruaren erabilpenean ahalik eta zeregin natural gehienak mantentzea.

2.- Horretarako, araudi bidez erabilpen desberdinei lotutako lurzoru-kalitateen estandarrak ezarriko dira, zeregin naturalen eta erabilpenezkoen bateratzea optimizatzearen. Era berean, erreferentzia gisa erabiliko dira erabilpenak esleitzeko eta lurzoru babesteko politikak bere dituen prebentzio, defentsa eta berreskuratzeko neurriak ezartzeko.

### 29. atala.- Lurzoruaren babesa.

Lurzoru babestea oinarritzko betebeharra dute lurra daukatenek eta jabeek. Horrek berekin du lurzoruaren kalitatea nolakoa den jakin eta kontrolatu beharra eta prebentzio-, defentsa- zein berreskurapen neurriak hartzea.

#### IV. ATALBURUA

#### AIREAREN BABESA, ZARATAK ETA DARDARAK

### 30. atala.- Helburuak.

1.- Airean pertsonentzat edo edozein motatako ondasunentzat arriskua, kaltea edo eragozpena sor dezaketen materia edo energi erak (akustikoa eta dardarazkoa barne) egon ez daitezkeen prebenitu, zaindu eta zuzentzekoa izango da atmosfera babesteko politika. Horretarako kalitate-helburuak, mugako balioak eta alertarako atalaseak definitu eta ezarriko dira.

2.- Atalburu honetan xedatzen dena betetzeko, poluitzaile bakoitzarentzat (zaratak eta dardarak barne direlarik) mugako balioa finkatutako maila bat izango da. Maila hori ezagutza zientifikoetan oinarrituz finkatzen da, giza osasunarentzat eta ingurugiroarentzat oro har izan daitezkeen eragin kaltegarriak saihestu, prebenitu edo murrizteko. Maila hori epe jakin batean lortu behar da eta lortu ondoren ez da gainditu behar.

Era berean, poluitzaile bakoitzarentzat (zaratak eta dardarak barne) alerta-atalasea maila bat izango da. Maila horretatik gora denboraldi laburrean egonda, giza osasunarentzat arriskuak daude, eta neurriak berehala hartu behar izaten dira.

### 31. atala.- Aire babesteko ekintzak.

Aurreko ataleko helburuak betetzearren, airea babesteko ondoko ekintzak garatuko dira:

a) La asignación de los usos del suelo a través de los instrumentos de planeamiento territorial y urbanístico en orden a garantizar sus funciones, dando prioridad a la preservación del uso productivo agrario y, en todo caso, a la reutilización de los suelos.

b) El mantenimiento del máximo de funciones naturales en el ejercicio de las funciones de uso del suelo.

2.- A tal fin, se establecerán reglamentariamente estándares de calidad del suelo vinculados a los distintos usos, que optimicen la armonización entre funciones naturales y de uso y sirvan así mismo de referencia tanto para la asignación de usos como para el establecimiento de las medidas de prevención, defensa y recuperación propias de la política de protección del suelo.

### Artículo 29.- La protección del suelo.

La protección del suelo constituye un deber básico de sus poseedores y propietarios, que conllevará las obligaciones de conocer y controlar la calidad del suelo, así como de adoptar medidas preventivas, de defensa y de recuperación.

#### CAPÍTULO IV

#### PROTECCIÓN DEL AIRE, RUIDOS Y VIBRACIONES

### Artículo 30.- Objetivos.

1.- La política de protección de la atmósfera estará orientada a prevenir, vigilar y corregir la presencia en el aire de materias o formas de energía, incluida la acústica y vibratoria, que impliquen riesgo, daño o molestia para las personas y bienes de cualquier naturaleza, procediéndose a tal fin a la definición y establecimiento de objetivos de calidad, valores límite y umbrales de alerta.

2.- A efectos de lo dispuesto en el presente capítulo, se entenderá por valor límite para cada contaminante, incluyendo los ruidos y vibraciones, un nivel fijado basado en conocimientos científicos, con el fin de evitar, prevenir o reducir los efectos nocivos para la salud humana y para el medio ambiente en su conjunto, que debe alcanzarse en un plazo determinado y no superarse una vez alcanzado.

Asimismo se entenderá por umbral de alerta para cada contaminante, incluyendo los ruidos y vibraciones, un nivel a partir del cual una exposición de breve duración supone un riesgo para la salud humana, debiendo tomarse medidas inmediatas.

### Artículo 31.- Acciones para la protección del aire.

Con el fin de cumplimentar los objetivos del artículo anterior, en materia de protección del aire se procederá al desarrollo de las siguientes acciones:

a) Ingurugiroko airearen kalitate-helburuak definitu eta ezartzea, giza osasunarentzat, jendearen lasaitasunarentzat eta oro har ingurugiroarentzat kaltegarri diren eraginak saihestu, prebenitu edo murrizteko.

b) Ingurugiroko airearen kalitatea ebaluatzea.

c) Ingurugiroko airearen kalitateaz informazio egokia lortzea eta jendeari oro har berri ematea.

d) Ingurugiroko airearen kalitate ona mantentzea eta, dagokionean, hobetzea.

e) Euri azidoak, klimaren aldaketak, ozono-geruza agortzeak, mugetan zeharreko fluxu poluitzaileek eta poluzio erradioaktiboak sortutako ingurugiro-ara-  
zoak arindu eta konpontzeko behar diren neurriak hartzea.

### 32. atala. – Zarata eta dardaren arloko ekintzak.

Atmosferako ingurugiroa zarata eta dardaren arloan babesteko helburuak betetzearren, ondoko ekintzak garatuko dira:

a) Ingurugiroko airearen kalitate-helburuak definitu eta ezartzea, zarata eta dardarengatik giza osasunarentzat, jendearen lasaitasunarentzat eta oro har ingurugiroarentzat kaltegarri diren eraginak saihestu, prebenitu edo murrizteko.

b) Zarata- edo dardara-maila maximo onargarriak finkatzea garraibide, industria, jarduera, instalazio, makina, aparatu eta elementuetarako eta, oro har, eragozpen-bide izan edo pertsonentzat, ondasunentzat edo ingurugiroarentzat edozein motatako arrisku-bide gerta daitezkeen zaratak edo dardarak eragiten dituen edozein egoeratarako.

c) Hirigintzako planetan zarata edo dardarak dau-  
den zonetan mugak edo zehaztapenak finkatzea.

d) Zarata eta dardarekiko sentikor diren erabilpe-  
nak dituzten eraikinek bete beharreko isolamendu-  
baldintzak eta beste baldintza akustikoak definitzea.

e) Zarata eta dardaren mailak ebaluatzea.

### 33. atala. – Ingurugiro-organoaren eskumenak.

1.– Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organoari dagokio, lege honen 38. atalean xedatutakoaren kalterik gabe eta atalburu honetan araututako gaietan, hondoko zereginak garatzea:

a) Atmosferako ingurugiroaren kalitatea ebaluatzea.

a) La definición y el establecimiento de los objetivos de calidad del aire ambiente para evitar, prevenir o reducir los efectos nocivos sobre la salud humana, el sosiego público y el medio ambiente en su conjunto.

b) La evaluación de la calidad del aire ambiente.

c) La obtención de información adecuada sobre la calidad del aire ambiente y su puesta en conocimiento del público en general.

d) El mantenimiento de una buena calidad del aire ambiente y la mejora en su caso.

e) La adopción de las medidas necesarias a fin de contribuir a la mejora y solución de los problemas medioambientales generados por la lluvia ácida, el cambio climático, el agotamiento de la capa de ozono, los flujos transfronterizos contaminantes y la contaminación radiactiva.

**Artículo 32.** – Acciones en materia de ruidos y vibraciones.

En aras de cumplimentar los objetivos de protección del ambiente atmosférico en materia de ruidos y vibraciones, se desarrollarán las siguientes acciones:

a) La definición y el establecimiento de los objetivos de calidad del aire ambiente para evitar, prevenir o reducir los efectos nocivos que sobre la salud humana, el sosiego público y el medio ambiente en su conjunto se derivan de la generación de ruidos y vibraciones.

b) La determinación de los niveles máximos de ruido y vibración permitidos para los medios de transporte, industrias, actividades, instalaciones, máquinas, aparatos, elementos y, en general, cualquier situación susceptible de generar niveles de ruido o vibración que puedan ser causa de molestia o suponer riesgos de cualquier naturaleza para las personas, los bienes o el medio ambiente.

c) La fijación de las limitaciones o especificaciones al planeamiento urbanístico en áreas expuestas al ruido o la vibración.

d) La definición de las condiciones de aislamiento y otros requisitos acústicos a cumplir por los edificios que alberguen usos sensibles al ruido o la vibración.

e) La evaluación de los niveles de ruidos y vibración.

**Artículo 33.** – Competencias del órgano ambiental.

1.– Corresponderá al órgano ambiental de la Comunidad Autónoma, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 38 de la presente ley, y en aquellas materias reguladas por el presente capítulo, el desarrollo de las siguientes funciones:

a) Evaluar la calidad del medio ambiente atmosférico.

b) Atmosfera polui dezaketen jardueren katalogoa osatzea.

c) Poluitzaileak murrizteko planak ezartea.

d) Poluitutako atmosferaren zonak deklaratu dituzan Jaurlaritzari proposatzea.

e) Isurpen-fokuak kontrolatzeko programak ezartzea, isurpen-mugak errespetatzen direla zaindu eta bermatzeko.

f) Isurpen-fokuen eragina ebaluatu eta eragin horiek zuzentzeko neurriak hartzea.

g) Mugako balioak edo alerta-atalasea gainditzeko arriskua dagoenean, aireko noizbehinkako edo larrialdietako poluzioegoerak konpontzeko jarduerak programak ezartzea.

h) Akustikoki poluitutako zonak deklaratu dituzan Jaurlaritzari proposatzea.

2.- Atal honetako 1.g) azpiatalak aipatzen dituzten jarduerak programak barne izango dute mugako balioak edo alerta-atalaseak gainditzeko arriskua duten zonetan epe motzean hartu beharreko neurrien multzoa. Neurri horietakoa izan daiteke, premia dagoenean, jarduerak aldi baterako bertan behera uztea, ibilgailuen zirkulazioa barne.

#### 34. atala. – Udalen eskumenak.

Atmosferako ingurugiroa babesteko politikaren helburuak betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek ordenantzak argitaratuko dituzte edo daudenak moldatuko dituzte. Era berean, beren lurraldeplangintzetako baliabideetan kalitate-helburuak, mugako balioak eta alerta-atalaseak sartuko dituzte. Poluzio-maila handiak detektatu diren lurzoruen erabilpenean murrizketak ezar ditzakete eta beste poluzio-iturri batzuk ezartzea ere muga dezakete.

#### 35. atala. – Neurriak hartu beharra.

Airea poluitzeko (zarata eta dardarazko poluzioa barne) edozein fokuren titularrek obligazioa dute maila onargarriak mantentzeko behar diren neurriak hartzeko, horretarako banakako errekerimendu edo loturako ekintza beharko ez delarik.

#### 36. atala. – Ibilgailuak.

Autonomia Erkidegoko lurretan dabilten ibilgailu guztiek gas poluitzaile eta partikulen isurpen-mailak bete behar dituzte. Halaber, zarata-mailari eta kalitate akustikoari aplikatzekoak diren gaineko baldintzak beteko dituzte, baita bertan instalaturik dituzten alarma-sistema edo sirenei aplikatzekoak ere.

#### 37. atala. – Eraikin eta lokaletako obrak.

b) Elaborar un catálogo de actividades potencialmente contaminadoras de la atmósfera.

c) Establecer planes de reducción de contaminantes.

d) Elevar al Gobierno la propuesta de declaración de zonas de atmósfera contaminada.

e) Establecer programas de control de los focos emisores a fin de vigilar y garantizar el cumplimiento de los límites de emisión aplicables.

f) Evaluar los impactos generados por los focos emisores y medidas de corrección de dichos impactos.

g) Establecer programas de actuación para resolver situaciones de contaminación del aire episódicas o de emergencia que supongan riesgo de superación de los valores límite o de los umbrales de alerta.

h) Elevar al Gobierno la propuesta de declaración de zonas acústicamente contaminadas.

2.- Los programas de actuación a los que se refiere el apartado 1.g) del presente artículo incluirán el conjunto de medidas que deban adoptarse a corto plazo y en las zonas afectadas por el riesgo de superación de los valores límite o de los umbrales de alerta, entre las que podrán contemplarse, cuando sea preciso, la suspensión temporal de actividades, incluido el tráfico automovilístico.

#### Artículo 34. – Competencias de los municipios.

Con el fin de cumplimentar los fines de la política de protección del medio atmosférico, los municipios de la Comunidad Autónoma del País Vasco procederán a la promulgación de ordenanzas o a la adaptación de las ya existentes, así como a la incorporación a sus instrumentos de planificación territorial de los objetivos de calidad, valores límite y umbrales de alerta, pudiendo incorporar medidas de restricción en la utilización de suelos donde se hayan observado altos niveles de contaminación y limitando asimismo la implantación de nuevas fuentes emisoras.

#### Artículo 35. – Obligación de adoptar medidas.

Los titulares de cualesquiera focos de contaminación atmosférica, incluida la causada por ruido y vibración, tendrán la obligación de adoptar las medidas necesarias para observar los niveles aplicables, sin necesidad de actos de requerimiento o sujeción individuales.

#### Artículo 36. – Vehículos.

Todos los vehículos que circulen por el territorio de la Comunidad Autónoma deben cumplir los niveles de emisión de contaminantes gaseosos y partículas. Asimismo cumplimentarán los niveles de emisión de ruido y demás condiciones de calidad acústica aplicables, incluso para los sistemas de alarma o sirena que lleven instalados.

#### Artículo 37. – Obras en edificios y locales.

1.- Zarata edo dardara sortu edo jaso dezakeen obra edo jarduerarako edozein proiektuk eragin horien azterketa eduki beharko du.

2.- Obra guztiek geroko erabilpenean aplikatu daitezkeen poluzio akustikoaren mailak errespetatzeko behar diren zuzenketa-neurriak eduki behar dituzte.

3.- Udal-ordenantzek edozein jarduera ezartzen den lokaletan poluzio akustikoaren eragina murrizteko neurriak zorrotz ezarri behar dituzte.

### III. IDAZPURUA INGURUGIROAN ERAGINA DUTEN JARDUEREN ANTOLAMENDUA

#### I. ATALBURUA XEDAPEN OROKORRAK

**38. atala.** - Ingurugiroa eta osasun publikoa.

1.- Ingurugiroan eragina duten jardueren antolamendua ingurugiro-osasuna babesteko premiari erantzunez eta jardueragatik giza osasunarentzat dau den arriskuak baloratuta egingo da.

2.- Aurreko azpiatalean adierazitakoaren arabera, idazpuru honetan aipatutakoa burutzeko ingurugiro-organoari emandako ahalmenak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak garatzen dituenen kalterik gabe erabiliko dira.

**39. atala.** - Poluzioaren kontrol integratua.

1.- Ingurugiroan eragina duten jarduerak egoki antolatzeko eta poluzioaren kontrol integratuaren oinarria eraginkorra izan dadin, eta eskudun organo baten bakoitza gehiagok parte hartzen duenean, ingurugiroaren arloko arauetan aipatutako lizentzia eta baimenak lortzeko diren prozedura administratiboak eta bertan ezarritako baldintzak koordinatzeko behar diren neurri guztiak hartzea bultzatuko da.

2.- Era berean, Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organoaren eskumen diren gaietan, aipatutako organoak ingurugiroaren arloko legerian aipatzen diren baimen eta prozedurak bateratzea bultzatuko du.

#### II. ATALBURUA INGURUGIROAREN GAINEKO ERAGINAREN EBALUAZIOA

**40. atala.** - Kontzeptua.

Ingurugiroaren gaineko eraginaren ebaluazioa honako hau da: lege honetako I. eranskinean dauden plan eta proiektuak gauzatzean ingurugiroan sor dai-

1.- Todo proyecto de obra o actividad susceptible de producir o recibir ruido o vibración deberá incluir un estudio de estos impactos.

2.- Todas las obras deberán incorporar las medidas correctoras necesarias para que su futura utilización respete los niveles de contaminación acústica aplicables.

3.- Las ordenanzas municipales deberán extremar las medidas tendentes a paliar los efectos de la contaminación acústica de los locales en los que se instale cualquier actividad.

### TÍTULO III ORDENACIÓN DE LAS ACTIVIDADES CON INCIDENCIA EN EL MEDIO AMBIENTE

#### CAPÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 38.** - Medio ambiente y salud pública.

1.- La ordenación de las actividades con incidencia en el medio ambiente se llevará a cabo atendiendo a la necesaria protección de la sanidad ambiental y a la valoración de los riesgos que del ejercicio de aquéllas se deriven en la salud humana.

2.- De acuerdo con lo expuesto en el apartado anterior, las funciones atribuidas al órgano ambiental para la ejecución de lo contemplado en este Título se ejercerán sin perjuicio de las que desarrolle el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.

**Artículo 39.** - Control integrado de la contaminación.

1.- Con el fin de lograr una correcta ordenación de las actividades con incidencia en el medio ambiente y en aras asimismo de hacer efectivo el principio de control integrado de la contaminación, y en el supuesto de intervención de varios órganos competentes, se impulsará la adopción de todas aquellas medidas necesarias para coordinar los procedimientos administrativos destinados a la obtención de las licencias y autorizaciones contempladas en la normativa sectorial medioambiental, así como las condiciones que en las mismas se impongan.

2.- Asimismo, en aquellas materias competencia del órgano ambiental de la Comunidad Autónoma se impulsará por éste la refundición de las autorizaciones y procedimientos contemplados en la legislación sectorial de medio ambiente.

#### CAPÍTULO II EVALUACIÓN DE IMPACTO AMBIENTAL

**Artículo 40.** - Concepto.

Se entiende por evaluación de impacto ambiental el conjunto de estudios y sistemas técnicos que permiten estimar y corregir los efectos que sobre el me-

tezkeen eraginak balioetsi eta zuzentzeko aukera ematen duten azterketa eta sistema teknikoen multzoa.

**41. atala.** – Aplikazio-esparrua.

1.– Lege honen I. eranskinean egonda Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatu nahi diren planen eta proiektuez (publiko zein pribatuez), nahitaez egin beharko da ingurugiroaren gaineko eraginaren ebaluazioa.

2.– Ohiz kanpoko kasu batzuetan Euskal Autonomia Erkidegoko Jaurlaritzak, arrazoitutako erabakiaren bidez, lege honetan aipatutako ingurugiroaren gaineko eragina ebaluatzeko prozedurak aplikatzetik erabat edo neurri batean salbuetsita utz dezake I. eranskinean jasotako plan eta proiekturen bat. Esandako erabaki hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

**42. atala.** – Helburuak.

Ingurugiro-eraginaren ebaluazioek ondoko helburuak egoki beteko direla bermatuko dute:

a) Plangintzako lehen faseetan, eta alternatiba egokienak aukeratzeko, ingurugiroan izango diren eraginaren analisia sartzea, jarduera desberdinen eragin metagarri eta sinergikoak kontuan hartuko direlarik.

b) Jardueraren sustatzaileari ahal den informazio guztia ematea, horrek ingurugiroaren gaineko eraginaren azterketa egin ahal dezan.

c) Ingurugiroan planen eta proiektuen eraginak baloratzeko behar diren ingurugiro-kalitateko irizpideen berri sustatzaileari ematea.

d) Arlo publikoak eta pribatuak parte hartzea erraztea.

**43. atala.** – Ingurugiro-eragina ebaluatzeko prozedurak.

Lege honetan, ingurugiroaren gaineko eragina ebaluatzeko hiru prozedura ezartzen dira:

a) Ingurugiro-eraginaren ebaluazio bateratua, plan bat aplikatuta ingurugiroan sortaraziko diren eraginak araudi bidez garatuko den prozeduraren arabera baloratzeko.

b) Ingurugiro-eraginaren banakako ebaluazioa. Helburua proiektu bat burututakoan ingurugiroarekiko eraginak ekainaren 28ko 1.302/1986 Legegitzako Errege Dekretuan eta hori garatzen duen araudian jasotako prozeduraren arabera baloratzea da.

dio ambiente puedan ser originados por la ejecución de los planes y proyectos contenidos en el Anexo I de esta ley.

**Artículo 41.** – Ámbito de aplicación.

1.– Deberán someterse preceptivamente al correspondiente procedimiento de evaluación de impacto ambiental los planes y proyectos, bien fueran públicos o privados, que, encontrándose recogidos en el Anexo I de esta ley, se pretendan llevar a cabo en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– En casos excepcionales el Gobierno de la Comunidad Autónoma del País Vasco podrá exceptuar, mediante acuerdo motivado, en su totalidad o en parte a alguno de los planes y proyectos citados en el Anexo I de la aplicación de los procedimientos de evaluación de impacto ambiental recogidos en esta ley. El citado acuerdo será publicado en el Boletín Oficial del País Vasco.

**Artículo 42.** – Objetivos.

Las evaluaciones de impacto ambiental garantizarán de forma adecuada el cumplimiento de los siguientes objetivos:

a) introducir en las primeras fases del proceso de planificación, y en orden a la elección de las alternativas más adecuadas, el análisis relativo a las repercusiones sobre el medio ambiente teniendo en cuenta los efectos acumulativos y sinérgicos derivados de las diversas actividades.

b) facilitar al promotor de la actividad cuanta información sea posible para que éste se halle en condiciones de poder realizar el estudio de impacto ambiental.

c) informar al promotor sobre los criterios de calidad ambiental necesarios para la valoración de las repercusiones de los planes y proyectos en el medio ambiente.

d) favorecer la participación pública y privada.

**Artículo 43.** – Procedimientos para la evaluación de impacto ambiental.

A efectos de la presente ley se establecen tres procedimientos de evaluación de impacto ambiental:

a) Evaluación conjunta de impacto ambiental, destinada a valorar los efectos que sobre el medio ambiente se deriven de la aplicación de un plan, de acuerdo con el procedimiento que se desarrollará reglamentariamente.

b) Evaluación individualizada de impacto ambiental, destinada a valorar los efectos de la ejecución de un proyecto sobre el medio ambiente de acuerdo con el procedimiento contemplado en el Real Decreto Legislativo 1302/1986, de 28 de junio, y su normativa de desarrollo.

c) Ingurugiro-eraginaren ebaluazio sinplifikatua. Helburua ingurunean eragin txikia duen proiektua burututakoan edo ingurugiroaren gaineko eraginak detektatzea edo zuzentzea erraza denean ingurugiroaren gaineko eraginak baloratzea da.

#### 44. atala. – Eskumenak.

1.– 46 eta 47. ataletan aurreikusitakoari dagokionez, eta ingurugiroaren gaineko eraginaren txostena eta deklarazioa egiteko eskudun organoa Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organoa izango da.

2.– Eskumen hori eduki arren, plana onartzeko edo proiektuari baimena emateko funtsezko eskumena lurralde historikoetako foru-organoei dutenean, aurreko paragrafoan onartutako eskumen hori azken horiei esleitzen zaie, gauzatu nahi den planak edo proiektuak lurralde historiko bat baino gehiagoko lur-esparrua gaintitzen duenean izan ezik. Azken kasu horretan prozeduran foru-organoen parte-hartzea bermatuko da.

45. atala. – Ingurugiroaren gaineko eraginaren azterketa.

43. atalaren b) azpiatalean adierazitako prozeduraren pean jartzeko, I.B) eranskinean aipatzen diren plan eta proiektuek ingurugiroaren gaineko eraginaren azterketa eduki beharko dute, azterketak gutxienez honako puntu hauek izango dituelarik:

a) Proiektuaren eta horretatik ondorioztatzen diren ekintzen deskribapena.

b) Alternatiben laburpena eta onartutako soluzioaren justifikazioa.

c) Ingurugiro-inbentarioa eta ekologiako zein ingurugiroko elkarrekintza nagusien deskribapena.

d) Eraginaren identifikazioa eta balorazioa, bai proposaturiko soluzioan eta bai alternatibetan.

e) Zuzentzeko neurriak ezartzea.

f) Ingurugiroa zaintzeko programa.

g) Sintesi-dokumentua.

46. atala. – Ingurugiro-eraginaren ebaluazio bateratua.

1.– I. eranskineko A) zatian aipatutako planei dagokienez, eta horiek onartu baino lehen, formulatzeko ardura duen organoak ebaluazio bateratua egingo du. Eskudun organoari dagokio 44. atalean xedatutakoaren arabera ingurugiroaren gaineko eraginaren txostena egitea. Bertan, ingurugiroaren arloari bakkari dagokiolarik, eraginei buruz eta ingurugiroaren gaineko ebaluazioari buruz duen iritzia emango du, eta, era berean, planak burutzen direnean prebenitzeko, zuzentzeko edo konpentsatzeko bere iritziz hartu beharreko neurrien berri ere emango du.

c) Evaluación simplificada de impacto ambiental, destinada a valorar los efectos que sobre el medio ambiente se deriven de la ejecución de un proyecto de menor incidencia en el entorno y respecto del cual la detección o corrección de impactos ambientales pueda ser simple.

#### Artículo 44. – Competencias.

1.– A los efectos de lo previsto en los artículos 46 y 47 se entenderá como órgano competente para la emisión del informe y de la declaración de impacto ambiental el órgano ambiental de la Comunidad Autónoma.

2.– No obstante tal atribución, en aquellos casos en los que la competencia sustantiva para la aprobación del plan o autorización del proyecto resida en los órganos forales de los territorios históricos, la competencia reconocida en el párrafo anterior queda atribuida a estos últimos, excepto cuando el plan o proyecto que se pretenda ejecutar supere o afecte al ámbito territorial de más de un territorio histórico, supuesto éste en el que se garantizará la participación en el procedimiento de los órganos forales.

#### Artículo 45. – Estudio de impacto ambiental.

En orden a su sometimiento al procedimiento contemplado en el apartado b) del artículo 43, los proyectos contenidos en el Anexo I.B) deberán incluir un estudio de impacto ambiental, que contendrá al menos los siguientes datos:

a) Descripción del proyecto y acciones que de él se deriven.

b) Resumen de las alternativas y justificación de la solución adoptada.

c) Inventario ambiental y descripción de las interacciones ecológicas o ambientales claves.

d) Identificación y valoración de impactos tanto en la solución propuesta como en sus alternativas.

e) Establecimiento de medidas correctoras.

f) Programa de vigilancia ambiental.

g) Documento de síntesis.

Artículo 46. – Evaluación conjunta de impacto ambiental.

1.– En relación con los planes contemplados en el apartado A) del Anexo I, y con carácter previo a su aprobación, el órgano responsable de su formulación procederá a realizar una evaluación conjunta, correspondiendo al órgano competente de conformidad con lo dispuesto en el artículo 44 la emisión de un informe de impacto ambiental que exprese, a los solos efectos ambientales, su parecer sobre aquéllos y sobre su evaluación ambiental, así como sobre las medidas de carácter preventivo, corrector o compensatorio que, en su opinión, debieran acompañar a la ejecución de los mismos.

2.- Aurreko azpiatalak aipatzen duen ingurugiroaren gaineko eraginari buruzko txostena emateko epea gehienez lau hilabetekoa da. Txosten hori kontuan hartu beharko dute planak egiteko eta onartzeko ardura duten organoek, erabakiak hartzerakoan.

3.- Plana onartzen deneko ebazpen administratiiboak, eta dagokionean onespina ematen duen legezko arauak, erabakia hartzeko izandako arrazoiak azaldu beharko ditu erabaki hori ingurugiroaren gaineko eragineko txostenaren edukiarekin bat ez datorrenean.

4.- Planen ingurugiroaren gaineko eraginei buruzko txostenek bertako proiektuek duten ingurugiroaren gaineko eragina banaka ebaluatzeko jarraibide orokorrak adieraziko dituzte.

**47. atala.** - Ingurugiro-eraginaren banakako ebaluazioa.

1.- Lege honetako I. eranskinen B) zatian aipatutako proiektuak egiteko (edo dagokionean baimena emateko) ebazpen administratiibo onartu baino lehen, proiektuek banakako ebaluazioaren prozedura bete beharko dute. Prozedura 44. atalean xedatutakoaren arabera eskudun organoak ingurugiroaren gaineko eraginaz egiten duen deklarazioaz amaituko da, eta, ingurugiro arloan baino eragina izan ez dezan, ekintza hori komeni den edo ez adieraziko du. Erabakia baiezkoa denean, zein baldintzarekin egin behar den finkatuko du.

2.- Ingurugiroaren gaineko eraginaren deklarazioaren edukia loteslea izango da I. eranskinen B) zatian aipatzen diren proiektuak burutzeko neurri eta baldintzei dagokienez. Baita deklarazioa kontrakoa denean ondorio gisa proiektua burutzeko modurik ez izateko ere.

3.- Lege honetako II. eranskinen aipatzen diren jarduerak direnean eta ingurugiroaren gaineko eraginaren banakako ebaluazioa dutenean, ebaluazio horrek ordeztuko du eragin guztietarako lege honen 59. atalak adierazitako neurri zuzentzaileak ezartzeko tramitea.

4.- Ingurugiroaren eraginaren gaineko deklarazioa emateko epea gehienez lau hilabetekoa izango da, 44. atalean xedatutakoarekin bat etorritik eskumenak dituen organoari ingurugiroaren gaineko eraginari buruzko azterlana bidaltzen zaionetik kontatuta. Epe hori amaituta berariazko erabakirik ez badago, prozedurari jarraipena eman ahal izango zaio.

5.- Aurreko azpiatalean aipatutako epea hilabetekoa izango da, baldin eta ekainaren 28ko 1.302/1986 Legegintzako Errege Dekretuan aipatutako jendurereko jakinarazpen-izapideak proiektua baimentzeari edo egiteari buruzko ebazpena ematen duen organoak egin baditu.

2.- El plazo máximo para la evacuación del informe de impacto ambiental a que se refiere el apartado anterior será de cuatro meses. Dicho informe deberá ser tenido en cuenta por los órganos responsables de la elaboración y aprobación de los planes en el proceso de toma de decisión.

3.- La resolución administrativa por la que se apruebe el plan, y, en su caso, la norma legal que dicte la aprobación, deberá motivar la decisión adoptada cuando la misma discrepe del contenido del informe de impacto ambiental.

